

Sarrera

Gu Kepa, Pedro, Aitor eta Unai gara. Deba eta Elgoibarko lau gazte. Covidaren eta herri denden egoera ikusita, hauek laguntzeko ideia bat garatu dugu. Momentu kritiko honetan laguntza behar dute eta uste dugu gure ideia garatuz gero herriko dendek eskertuko dutela eta laguntza handia izango dela eurentzat. Badakigu gaur egun dauden eta denok ezagutzen ditugun denda handiekin lehiatzea oso lan zaila dela denda txiki hauentzat, eta hori ez da gure helburua, komertzio txiki hauek bizirik irautea baizik. Herriko dendekin bilduko gara, gure proiektua azalduko diegu eta nahi duten denak parte hartzera gonbidatuko ditugu. Ondoren, eurek erabakiko dute proiektuan parte hartuko duten edo ez komeni zaienaren arabera. Proiektuan parte hartzea erabakitzen badute eta behin proiektuaren barruan daudela ateratzea erabakitzen badute edozein arrazoi dela eta, proiektutik ateratzeko eskubidea edukiko dute.